# 2001 Zezenketa Kontuak

## *2001-08-16KO ZEZENKETA*

Feriako lehenengoa. Sarreren salmenta oso ona, ia beterik. Giro ezin hobea. Musika bandak oso ongi jo zuen.

Lau ergi Puerto de San Lorenzo ganadutegikoak ongi aurkeztuak eta aurpegi ederrekoak, bigarrena izan ezik, besteen aldean maila baxua erakutsi baitzuen.

Guztiak oso apalak eta portaera desberdinekoak izan ziren. Lehenengoa zintzoa izan zen eta adar biekin pase ugari izan zituen muletan aurpegia oso ongi sartuz. Bigarrenak apala eta koldarra, pase gutxi izan zituen eta oso ibilbide motza, beti burua goian edukiz. Hirugarrenak, aurkezpen paregabeko pintoa, tauletarantz atzera egin zuen, beti bere burua defendatuz eta arrisku handiz. Laugarrena askotan erori zen, apal jokatu zuen besteak bezala eta eduki zituen pase gutxi horietan motza geratzen zen, txekor zintzoa izan arren.

AITOR OSA izan zen lehendakaria eta txalo asko jaso zituen. Oso lan ona egin zuen. JUAN ANDRÉS GONZALEZ (kartelean iragarritako Miguel Maestroren ordezkoa) eta EDUARDO "EL GALLO" (DANIEL MARTIN "EL DANI"-ren ordezkoa) izan ziren toreroak. Bi torero ordezkatuak beste jaialdi batean lesionaturik zeuden.

JUAN ANDRÉS GONZALEZEK eskarmentu handiko nobilleroa dela erakutsi zuen, beti jakin izan zuen zer egin behar zuen bere sortako txekorrekin, biak ere apalak eta oso portaera desberdinekoak. Belarri bat moztu zuen, suertatu zitzaizkion bi ergien gainetik zegoela erakutsiz.

EDUARDO "EL GALLO" nobillero gazteak publikoa hunkitu egin zuen, duen adinerako trebezia ezohikoa agertu baitzuen txekor mantso eta iheskorrak toreatzeko.

IÑIGO ARRIZABALAGA aguaziltxoak Limonero zaldiarekin erakustaldi bikaina eskaini zuen.

## *2001-08-18KO ZEZENKETA*

Feriako bigarrena. Sarrera ona, plazaren hiru laurdena baino gehiagokoa. Lehendakaria: IÑAKI ODRIOZOLA, oso txalotua.

Puerto de San Lorenzo ganadutegiko lau txekor ongi aurkeztuak eta jokua eman zutenak; azpimarratzekoak 2.a bere zintzotasunagatik eta 3.a bere kastagatik.

Nobleak orokorrean, nahiz eta laugarrenak bukaeran mantsoen portaera izan. CURRO REYES ekuatoriarrak ezkerreko eskua lesionaturik zuela toreatu zuen eta ez zen bere abilidadea erakusteko gai izan. Bere lana ez zen txalotu eta txekorren aukeren azpitik egin zuen lan. ALVARO JUSTO madrildarra izan zen beste toreroa eta portaera ona eta batez ere toreroa izateko gogoa erakutsi zituen; nobillero bati eska diezaiokegun gutxienekoa. Plaza erditik agurtu zuen publikoa lehenengo zezena hil zuenean eta bigarrenari apendize bat moztu zion. Txalo zaparrada artean agurtu zuen publikoak.



Aguaziltxo moduan lan bikaina egin zuen IÑIGO ARRIZABALAGAK.

FERNANDO OSÉS sobresalienteak ere bere lana bete zuen.



## 2001-08-20KO ZEZENKETA

Feriako azkena, Puerto de San Lorenzoko lau txekor, ongi aurkeztuak, eta kastadunak. Bigarrena eta hirugarrena mantsoak izan ziren eta beraien nahietatik urrunduz gero pase asko zituzten. Laugarrena txekor paregabea izan zen, pausu luzeduna eta bi adarrekin agindako erasoetan burua makurtuta oldartzen zena. Ferian nabarmendu zen zezena izan zen: kementsua, noblea eta kastaduna. Guztiek sartu zuten aurpegia ongi muletan, nahiz eta bigarrenak eta hirugarrenak zailtasunak izan behar bezala berdintzeko.

Oso sarrera ona.

Lehendakaria: MIGUEL LEKUBE izan zen eta bere lana bete arren sariak ematea pixka bat kostatu zitzaion.

FRANCISCO VELASCOK txekorrekin duen maisutasuna erakutsi zuen, ibilbide oneko muletazoak emanez, nahiz eta batasun zentzua falta izan eta lotura gehiago behar. Ezkerreko eskua gehiago luzatu beharko du pase naturalei sakontasuna emateko. Ezpatakadetan duen abilezia argi utzi zuen ezpata bete-betean azpiraino sartuz bere bi zezenetan.

JAVIER PEREAK etorkizun oparoa duela agerian jarri zuen. Bere bi txekorrak muletaz oso ongi toreatu zituen, bereziki laugarrena, estokadaz hil zuena. Lehenengo ergia beherakada nabari batean hil zuen, nahiz eta bere alde esan behar den zailtasun handiak zituela berdintzeko txekorrak aztarrika eta atzera egiten baitzuen. Oso ongi sartu zituen banderillak. Publikoak oso gustoko izan zuen.

AITOR OSA txirrindulariari eskaini zion txekorra.

Nobillada guztietan PACO SALEGI izan zen aholkularia eta ISIDRO ARISTI albaitari aholkularia.

Arautuakoaren arabera hamabi txekorrak Ortuellan erraustu ziren eta horregatik ez dakigu kanaleko pisua.

D. LORENZO FRAILE MARTÍN ganaduzalea eta bere emaztea hilaren 18ko zezenketara etorri ziren.

**KULTURA ETA FESTA SAILA**

# Apuntes Taurinos 2001

### NOVILLADA DEL 16-08-2001

Primera de feria. Muy buena entrada, casi lleno. Hubo un gran ambiente. Excelente la banda de música.

4 erales de la ganadería de Puerto de San Lorenzo, bien presentados y con cara, excepto el lidiado en 2° lugar que bajo en relación con el resto.

Todos muy mansos y con diferente comportamiento. El 1° fue noble y tuvo muchos pases por ambos pitones metiendo muy bien la cara en la muleta. El 2° manso y rajado tuvo pocos pases y un recorrido muy corto manteniendo siempre la cabeza alta. El 3°un colorado de excelente presentación, reculó hacia tablas, defendiéndose siempre y con un peligro sordo muy evidente. El 4° se cayo mucho, manseó como el resto y, en los pocos pases que tuvo, se quedaba muy corto, aunque fue un novillo noble.

Presidió el ciclista AITOR OSA que fue recibido con muchos aplausos. Resolvió muy bien su trabajo. Lidiaron los novillos JUAN ANDRÉS GONZÁLEZ, que sustituyó al anunciado MIGUEL MAESTRO y EDUARDO "EL GALLO", que sustituyó a DANIEL MARTÍN "EL DANI". Ambos toreros sustituidos lo fueron por haber sufrido lesiones en sendos festivales.

JUAN ANDRÉS GONZÁLEZ se mostró como un novillero experimentado y con oficio, que supo siempre lo que tenía que hacer con los novillos de su lote, ambos mansos pero de muy diferente comportamiento. Cortó una oreja estando por encima de los erales que le tocó lidiar.

EDUARDO "EL GALLO", un novillero muy joven causó una excelente impresión por mostrar un conocimiento impropio de su edad para lidiar unos novillos mansos y huidizos. Toreó muy templado dando la vuelta al ruedo en sus dos novillos siendo muy aplaudido por el público. Debe mejorar en la suerte de matar que le privó de cortar algún trofeo.

El alguacilillo, IÑIGO ARRIZABALAGA, hizo las delicias del público montando al caballo Limonero.

### NOVILLADA 18-08-2001

Segunda de Feria. Buena entrada, mas de 3/4 del aforo de la plaza. Presidió el festejo: Iñaki Odriozola que fue muy aplaudido.

4 novillos de la ganadería de Puerto de San Lorenzo muy bien presentados y que dieron buen juego, destacando el 2° por su nobleza y el 3° por su casta. Nobles en general aunque el 4° hizo cosas de manso al final de la faena. Correspondió su lidia al ecuatoriano CURRO REYES que toreó visiblemente lesionado de la mano izquierda por lo que no estuvo en condiciones de mostrar sus conocimientos, siendo silenciadas sus actuaciones y estando por debajo de los novillos. Le acompañó en el cartel el madrileño ÁLVARO JUSTO que mostró buenas maneras y, sobre todo, ganas de ser torero que es lo menos que se puede pedir a un novillero. Saludo desde el tercio tras matar al primer toro, cortando un apéndice a su segundo. Fue despedido con grandes aplausos.



IÑIGO ARRIZABALAGA volvió a



lucirse con Limonero en su trabajo de alguacilillo.

Sobresaliente FERNANDO OSÉS que cumplió.

## NOVILLADA 20-08-2001

Última de feria, 4 novillos de Puerto de San Lorenzo, bien presentados, nobles y encastados 2° y 3° fueron mansos aunque, sacados de sus querencias tenían muchos pases. El 4° fue un excepcional novillo con un gran tranco y que, en las embestidas por los dos pitones, llevaba el hocico pegado a la arena. Fue el novillo de la feria: bravo, noble y encastado. Todos metieron bien la cara en la muleta, aunque el 2° y el 3° tuvieron dificultades para cuadrar por la suerte suprema.

Muy buena entrada.

Presidió MIGUEL LEKUBE que apuró mucho la concesión de trofeos, aunque cumplió con su trabajo.

FRANCISCO VELASCO, de Valladolid, vuelta en ambos. JAVIER PEREA de Albacete vuelta y dos orejas tras gran estocada, saliendo a hombros.

FRANCISCO VELASCO demostró oficio y conocimientos en los novillos, dando muletazos de buen trazo aunque falto sentido de la unidad y estuvo falto de ligazón. Deberá alargar más la mano izquierda dar profundidad a los pases naturales. Nos dejó ver su dominio con el estoque enterrando la espada en el hoyo de las agujas en sus dos toros.

JAVIER PEREA puso de manifiesto que tiene un gran futuro. Toreó muy bien de muleta a sus dos novillos, en especial al cuarto, al que mató de una gran estocada. A su primer eral le mató de un exagerado bajonazo, aunque en su descargo hay que decir que tenía muchas dificultades para cuadrar pues el novillo escarbaba y reculaba mucho. Banderilleó magníficamente. Causó una inmejorable impresión. Brindó el novillo del triunfo al ciclista AITOR OSA.

En todas las novilladas PACO SALEGI fue el asesor taurino e ISIDRO ARISTI el asesor veterinario.

Siguiendo las normas establecidas los 12 novillos fueron incinerados en Ortuella, por lo que no se sabe su peso a la canal.

El día 18 asistió a la novillada el ganadero D. LORENZO FRAILE MARTÍN con su esposa.

**DTO. DE CULTURA Y FESTEJOS**